

, auzoko txakur guztien zaunkek esnatu zuten Manex. «Zer gertatzen ote da?», galdetu zion bere buruari. Hanka bat ohetik atera, gero bestea, ahoa zabaldu, eta aharrausi egin zuen. , emakume baten garrasiak entzun zituen. Leihoraino joan, zabaldu, eta kalera begiratu zuen. Balkoi batean emakume bat oihuka ari zen.

Tigre handi bat, begi diamantedunak,
distiratsuak, kalean zehar zihoan lasai-lasai. Auzoko txakurrak
zaunkaka ari zitzaizkion, oso urrundik,
badaezpada.

, Manex sukaldeko armairuko edalontzi misterioitsuari begira-begira egon zen, ez zen ausartu handik esnea edan eta tigrea oraindik ere agertzen ote zen ikusten.